



CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Erronka berriek bultzatzen naute abenturekin jarraitzera»

TOLOSA ▶ Argentinako
100 kilometroko Chiquita
itsasoa zeharkatuko du
igerian bizkarrez

ZAILTASUNAK ▶ Uraren
gatz kopuru handiari eta
bertako eguraldiari aurre
egin beharko die ▶ 2



Carlos Peña igerilaria, Lodosan eginiko entrenamendu batean. HITZA



M. SOROA

Iñaki De Juana presoaren aldeko giza katea

IBARRA ▶ 50 lagun inguruk hartu zuen parte
atzo ekitaldian, gose greban 62 egun bete
zituena presoari elkartzuna adierazteko ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

«Torturatzaille» bat identifikatu dute 18/98 auziko bi auzipetuk

Guardia zibil bat da Txapartegik eta
Egibarrek identifikatutakoa ▶ 4

AMEZKETA ▶

Iker Karrerak
3. postua
eskura du
Espainiakoan

Azken proba korrituko
du bihar, Aragoian ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Etzi ekingo diote
Ibarraldeko gazteen
aurkako epaiketari

3 egunez deklaratu dute 2002an
atxilotu zituzten 8 gazteek ▶ 6



NESTOR ARDANAZ ESTUDIO

Julien katea 22
943 40 22 28
626 78 21 00

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA



HITZA

«Erronka berriek bultzatzen naute abentura hauetan jarraitzera»

Argentinako 100 kilometro luzerako Chiquita itsasoa zeharkatuko du igerian tolosarrak, hilaren 16ko astean

IÑIGO TERRADILLOS

Erronka berri bati ekiteko prest dago Carlos Peña igerilari tolosarra. Oraingoan, Hegoamerikako lurretara eramango du azken abenturak, Argentinara, hain zuzen ere. Mexikoko Chapala, Italiako Garda eta Hungariako Balaton lakuetak probak gainditu ostean, Nerbioi ibaia igerian zeharkatu eta Tolosako Usabal kiroldegiko 25 metroko igerilekuan 24 orduz igeri egin eta gero, burutzera doan erronka berri honen inguruko xehetasunak kontatu dizkio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI.

Non egingo duzu proba eta zertan datza?

Argentinako Cordoba probintziako Chiquita itsasoa igerian zeharkatzeko asmoa dut, beti bezala bizkarrez. Guztira, 100 kilometroko distantzia du Argentinako laku handiena den honek, eta zailtasun ugariarekin egingo dut topo bertan.

Zeintzuk dira zailtasun horiek?

Oso gatzatua da bertako ura, eta horrek asko zailduko du nire lana. Gainerakoekin konparatuta, lau bider gatzak kopuru handiagoa du laku edo itsaso honek. Itsaso Hilak duenaren oso antzekoa, eta honek

eragina izango du bai begietan, bai eta digestio-aparatu an ere. Horretaz gain, eguraldia ere kontuan hartu beharrek faktorea izango da abentura honetan, izan ere, haizearen norabidearen arabera itsasoaren alderdi batetik ala bestetik ekin beharko diot. Itsaslasterrak, haizearen norabidea eta eguraldia oso aldakorak izan ohi dira han, eta horregatik ez da hain segurua lakua.

Nola sortu da proiektua laku honetan egitearena?

Hasieran Chinan proiektu bat gauzatzeko asmoa nuen, baina ez zen posible izan. Beraz, hasi nintzen beste proiektu posible

batzuk bilatzen, eta Argentinakoa topatu nuen. Bertako Cordobako Gure Txokoa euskal etxearekin jarri nintzen harremanetan, eta asko gustatu zitzaizkidan, eta proiektua bultzatzea erabaki zuten. Ni asteartean, hilaren 10ean, Argentina aldeira joango banaiz ere, proba 16ko astean egitea pentsatzen dut, eta hurrengo asteburuan Argentinako Euskal Etxeen Astea egingo dute Cordoban bertan. Nire erronka beraien egitarauaren baitan sartu nahi izan dute.

Probako eguna iritsi aurretik probak egingo dituzte.

Bost egun lehenago joango naiz hara probak egitera. Erronka berriei ekin aurretik beti egiten ditut probak lehenago, beharrezkoa da segurtasun aldetik jakitea zehatz mehatz non burutuko dudan proba. Kasu honetan, uraren temperatura eta haizearen norabidearen berri izango dut, eta gatzak dela eta nola moldatzen naizen ere bai.

100 kilometro egingo dituzu bizkarrez igeri eginda. Nola egingen da hori?

Jesus Ramirez piraguista izango dut laguntzaile bezala, eta bizkarrez joango naizenez berak egingo ditu gidari lanak. Bestalde, salbamendu-taldea ere bertan egongo da edozer gertatuz gero laguntzeko. 4 edo 5 egunetan egitea espero dut, beraz, egun bakoitzeko 20 kilometro inguru egiten saiatuko naiz. 05:00etan altxatuko gara goizean, ondo gosalduta, eta lakura joango gara aurreko egunean utzi genuen tokira, bertatik probarekin jarraitzera. 8 ordu inguru egitea egunean aurreikusten dut.

Noiz eta nolatan hasi zinen abentura hauek burutzen?

Korrikalaria nintzen lehen, baina hanketan izan nuen arazo batengatik erronka hauekin hasi nintzen 24 urterekin. Lehenengo trabesia, espainiar izan zen, Logroñotik Zaragozara. Ordutik ez dut utzi. Jende eta kultura berriak ezagutzeak eta erronka berriei aurre egiteak bultzatzen naute abentura hauetan jarraitzera.

KIROLAK ▶

Tolosa Kup-en hirugarren jardunaldia jokoan da

Gaur arratsaldean hasita, hamar partidu jokatuko dituzte Uzturpe kiroldegian

ENERITZ MAIZ

Hirugarren astez, gaur eta bihar, Tolosa Kup-eko 10 partidu jokatuko dituzte, Uzturpe kiroldegian. Gaur sei, eta bihar lau izango dira, ikusi ahaliko diren partidak.

Gaurko jardunaldian parte hartuko duten hamabi taldeak, 16:10ean hasiko dira jokoan. Lehena, Transporte Escolar eta Txoko Txikik jokatuko dute. Honen ostean, 16:45ean, Zaleak eta Elorri; 17:20ean, Itaie eta Samberokak; 17:55ean Ordago eta Pub Kung-Fu, eta, 18:30ean, Sinsalus eta Bikutz. Azken lehia, 19:05ean hasita, Plaza Cristales eta Itzuli Tabernaren artekoa izango da. Oraingoan, kontrola emango duten taldeak, Transporte Escolar, Itaie eta Sinsalus dira.

Biharkoan ere, 16:10ean hasita, izango da futbolaz gozatzeko aukera, jokatuko diren lau partidekin. Lehenengo norgehiagoka URT eta Ekaitz taldeen artekoa izango da. Jarraian, 16:45ean, Recambios Ibarra eta Amarozen artekoa izango da. Kasu honetan, zortzi talde hauen kontrola, URT eta Igaratz taldeek emango dute.

Asteburu honetan, jokatuko duten hogeitaz hamar partiduak, Sinsalusekoak izango dira.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

AMEZKETA ▶ MENDI LASTERKETA

Karrerak Espainiako Kopan hirugarren egiteko aukerak ditu

Puyada a Oturia azken proba egingo du bihar, eta lortutako emaitzei esker Euskadiko Selekziokoak saria eskura dezake



Iker Karrera, Espainiako Kopan hirugarren geratzeko aukerak berarekin ditu. HITZA

NEREA URBIZU

Bihar Iker karrera mendi lasterkaria Sabiñanigora -Aragoi, Espainia- joango da, Espainiako Mendi Lasterketako Kopako azken proba korritzera. Puyada a Oturia da lasterketaren izena.

Espainiako Kopako orain arteko hiru probetan beti aurrealdean ibili da amezketarra. Horregatik, bihar egingo den Puyada a Oturia lasterketan, azkeneko proban, alegia, ondo bukatuko balu, sailkapen nagusian hirugarren geratzeko aukera handiak izango lituzke.

Iker Karrera sailkapen nagusian orain ere hirugarren dago, 216 punturekin. Lehenengo postuan, eta ia ehuneko ehunetan garaile izango den korrikalaria Raul Garcia madrildarra dago, 245 punturekin. Sailkapenean bigarren doana Tofol Castanyer katalana da, eta 226 puntu lortu ditu hiru lasterketetan. 4. sailkatua Xavier Espiña Kataluniako selekzioko da, eta 162 puntu ditu, Karreraren hurrengo, hain zuzen ere. «Puntuen arabera, ez du ematen arriskurik dagoe-

nik, baina bukatu arte, ezin da jakin», zihoen aurrekoetan Iker Karrera amezketarrak.

Sabiñanigon —Aragoi, Espainia— egin beharreko lasterketa gogorra izango da, datuen arabera. Izan ere, nahiz eta maratonia ez izan —42 kilometroko probak— 38 kilometro egin beharko dituzte korrikalariak, eta 2.130 metroko gorabehera positihoa dauka. Zalantzarik gabe, parte-hartzaileentzat erronka handia izango da.

Euskaldunak aurrean

Euskal selekzioko hainbat korrikalari dabilta Espainiako Kopan, bai gizonezko eta baita emakumezkoetan ere. Dena dela, aurreko proban hainbatetik Kopara uztea erabaki zuten.

Gaur egun, emakumeen artean Euskal Selekzioko bi lasterkari ditugu: Oihana Azkorbebeitia, laugarren postuan, eta Marta Garcia, zazpigarren. Gizonezkoen artean, 5. Fernando Etxegarai dago, hau ere sailkapen nagusian postu onenetan, eta 9. eta 10. Iñaki Lopetegui eta Arkaitz Zamakona.

PUNTUAKETA ▶

Karrerak lasterketetan lortutako emaitzak:

ESPAINIAKO KOPA Castellongoa (Herrialde katalanak). Ekainean 2:18:56. Bosgarren egin zuten, eta 61 puntu lortu zituen.

Bergan (Katalunia). Uztailean, 2:23:35.

Laugarren, 63 puntu. Palencian (Espainia). Irailean. 4:32:04. Bigarren, 92 puntu. Maratonia izan zen.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida:Telebista. Datu batzuek diotenaren arabera, euskaldunok reality deitzen zaienak gehien ikusten ditugunak gara. Euskaldunok zer ikusten dugu? zer da benetan ikusten duguna? Eman zure iritzia gure webgunean.

TOLOSA ▶ KIROLA



Tolosa CFko zuzendaritzako kideak, atzo, mahai-inguruan. E. EZEIZA

Berazubi eraberritzeak eragingo duen aldaketa

Tolosa CFk bere egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko mahai-ingurua egin zuen atzo

E. EZEIZA

Tolosa CFk, atzo, mahai-inguru bat osatu zuen klubaren egungo egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko. Instalakuntzen egoera txarra dela eta klubak eta Tolosako Udalak bilerak egin dituzte, eta elkarlanerako akordio batera iritsi dira. Hala, erabakitakoaren arabera, enpresa pribatu bati instalakuntzen inguruko azterketa bat gauzatzeko eskatu diote. Honek, hil honen amaierarako zehaztuko du zein den Berazubiren egoera, eta zer egin daitekeen honekin. Hau da, zer nolako aldaketak egin ahal zaizkion, gestio lanak nola eraman beharko liradituen... Tolosa CFko zuzendaritzako kideek argi duten gauza da, «nahiz eta aldaketak egon, Berazubik kirol instalakuntza bat izaten jarraitu behar delako».

Arrazoi honengatik, Tolosa CF klubak beste bide batzuk hartu beharko ditu. Izan ere, Inaki Arratibel Elkarteko Lehendakariaren esanetan, «beldur gara, instalakuntzak galtzen baditugu, bazkideen kopurua jaitsiko ote den».

«Tolosar asko ez baitira ohar-tzen, talde oso indartsua garelako», gaineratu zuen Arratibel.

Tolosa CF elkartearen baitan zortzi kirol edo sail ezberdin daude: futbola, atletismoa, txirrindularitza, saskibaloia, pilota, eskubaloia, tenisa eta gimnastika erritmikoa. Denera 400 kirolari federatu baino gehiago biltzen dituelarik. Gainera, hauetako askok emaitza oso onak lortu dituzte txapelketetan. Hala, zuzendaritzakoek erakutsi nahi dute «ongi funtzionatzen duen talde bat dela, eta Tolosa CF ez dela Berazubi bakarrik». Bestalde, azpimarratu nahi dute ere, kirolari eta langile asko doan ari direla lanean.

Bazkideei dagokionez, ia 1.000 bazkide ditu egun klubak. Arratibelek azaldu zenez, «gero eta egituratuagoa dagoen elkarte bat da, eta e-dukтура sendoa du». Organigrama baten bitartez antolatuta dago Tolosa CF. Bestalde, talde barruan dauden kirolari, urtero azterketa medikuak egiten dizkiete eta tekniko, formakuntza ikastaroak eskaintzen dizkiete.

iragarki laburrak ▶

SALGAI
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km, liburuarekin. 18 ko gurpiletako haguak eta tebuva. Egoera oso onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43 zenbakira

LANA
Tabernaria. Neska euskalduna

behar da Tolosaldean 4 ordu lan egiteko. Eskarmintuduna. Interesa dutenek deitu 635 74 52 91.
Ile-apaintzailea. Tolosan ile-apaintzailea behar da. Esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gizarte-segurantzarekin. Interesatuak deitu dezatela 625 70 50 59 zenbakira.

VILLABONA ▶

Zabor edukiontzi bati su eman diote kale Berrian

Ezezagun talde batek su eman zion ostegun gauean zabor edukiontzi bati Villabonan, Herrizango Salak jakinarazi duenez. 23:15ak aldera ezezagun talde batek zabor edukiontzi bat gurutratu zuten kale Berrian eta ondoren su eman zion. Hori egin ostean, Kubaeren kutsuz automatikoki bati likidua bota zioten. Herrizango Salak emandako informazioan arabera, baina ez zuten tortu su hartzea. Kutxazinak kalte txikiak izan ditu.



Kubazainaren egoera, atzo. i.e.

VILLABONA ▶

Xaxi maskotari ongietorria egin diote Flemingean

Arroa auzoko Fleming eskolan ongetorri ekitaldia egin zioten atzo Xaxi, eskolako maskotari. Ikasturtearen egokitze prozesua burutu ostean egin dute ekitaldia. Xaxi pertsonaia eskolako ekimen askotarako erabiltzen dute, esaterako, haurrei euskaraz egin behar dutela gogorarazteko. Izan ere, eskolako irakasleek azaltzen dutenez, «Xaxi euskaraz bakarrik ulertzen du eta bere aurrean haurrek euskaraz hitz egin behar dute».



Ekitaldiaren une bat. i.e.

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoen pilotariak gaur Amasan

Behar-Zanako pilotariak Gipeuzako Eskuzko Txapelketaren baitan bi partida izango dituzte, gaur 19:00ean hasita. Amaesko pilotalekuan, Eskuz binaka afizionatu mailan Lizaso hilaibonatarak eta Txapartegi astesalarak Amondarain eta Ensoala beasaindarren aurka jokatuko dute. Eskuz binaka, Josemari Aranbururi Elbaroko pilotari baten aurka jokatu du. Bi partidak garrantzitsuak dira pilotariak aurtengo diestroaldiko helburuak lortzeko.

ALTO ▶

Dieten gaineko hitzaldia asteazkenean

Hitzaldi bat eskainiko dute asteazkenean, 17:00etan, Altxoko udaletxean, Digestio zuntzotzak edo digestio zuntzak izenekoa. Hitzaldia Aulas Kubaeren laguntza antolatu da Berian, janariak digertzeko prozesuan parte hartzen duten egiturak, elikagaiak ondo aprobetxatzeko jarraibideak eta aholkuak Aranzbururi Elbaroko pilotari baten aurka jokatu du. Bi partidak garrantzitsuak dira pilotariak aurtengo diestroaldiko helburuak lortzeko.

ALEGIA ▶

Behi Bi's taldearen ipuin kontaketa

Alegian haurrentzako proposa den ipuin kontaketa izango da Alegiako Udalak antolatutako ipuin kontaketa da eta etzi izango dute txikienek ikusteko aukera, 18:00etatik aurrera izango da Udai liburutegian, eta Behi Bi's taldeak aurkeztuko du ipuina. Behi Bi's taldea estaguna da eskualdean, hainbat aldiatan egin baitute saioa. Ni Arratoi ikuskizunarekin, esate baterako. Txotrongilekin aritzen dira gehienetan, eta Alegian ere izango da. Haurrek gozatzeko aukera, beraz, Alegiako Udai liburutegian.



18/98 AUZIA ▶

Egibarrek eta Txapartegik «torturatuak» bat identifikatu dute auzian

Fiskalak peritu bezala auzian deklaratzera deitutako guardia zibiletako bat da

IMANOL GARCIA

18/98 auzian pertsonen testigantza jasotzen ari dira auzietan. Fiskalak deituta, aste honetan guardia zibilt talde batek parte hartu du auzian. Horietako bat identifikatu ahal izan dute Mikel Egibar eta Nekane Txapartegi auzipituek beraien «torturatuak» bat bezala. Txapartegik TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HIRIARI azaldu duenez, «bere ahotsa entzuten orain sei urteko momentu batera itzuli nintzen. Mikeli begiratu eta berak ere identifikatu zuela ikusi nuen. Inkomunikatuta izan ginen egunetan, batek bestera ibiltzen zena zena, agintean zegoena zirudien. Egibarrek fiskalok identifikatzeak aukera izan zuten, kapu-



18/98 auziko inputatuek Bat Egin Egunerako jabele deia egiten. HIRI

txa kendu baitzuten inkomunikazio egoeran zegoen. Txapartegik, bere aldetik, Madriñe (Gipuzkoa) Plaza Centrala epaitegietan irekita dau-

zuten deklaratuak guardia zibiletako bat bezala. Txapartegik, aurrez aurreko saio bat izatea eskatu zuten, baina epaileek ez zuten onartu. Defentsak ere aste honetan deklaratzeko aritu diren guardia zibiltak peritu bezala bihurtzea eskatu zuten, atxikideta eta itaunketan parte hartu dutela esanez eta, beraz, auzian inplikaturik daudenaren argudioak mahai gainean jarri. Egibarrek HIRIARI azaldukoen arabera, epaile nagusiak guardia zibiltak alde egin du une oroan. Azaroaren 21an urtebete egingo du auzia hasi zela. Pertsonen testigantza lutzatzen ari denez, inputatuek epaileta datorren hilean amaitzeko zela espero baituten ere, otsailerak arte lutzatuko dela uste dute orain.

Bat Egin Eguna, bihar

18/99 • Iantaldeak eta 18/98 sumarioan auzipetuta dauden lagunek antolatuta, Bat Egin Eguna elkartasun jaiak egingo dituzte bihar, Asteasu-Urdiango (Nafarroa) San Pedro zaharretan. «Eskubide zibilt eta politikoen aldarrikatzea eta elkartasuna jasotzea, bere zentzu zabalenean» dira helburuak. Alde batek, epaileta parratzen dutenei elkartasun emozionala eta materiala emateko, bestaldek, epaitegietan batera egoera pairatzen ari diren sende eta adiskideei eskerrak eta elkartasuna erakusteko. Euzkalki Horriari eta Madriñe laguntza eta elkartasuna ematen dutenei daria ere «da, nola ez, elkartasun egoerak eta egun on bat pasatzeko aukera emateko», azaldu dute antolatzaileek. Barrera 11:00etan egingo dute eta edade egutietako jendearentzako ekitaldiak izango dira. Parteen bazkari herritokia ere egingo da. ◀

Advertisement for Kutxa with a man holding a folder and the slogan 'Berritu eta biz: biziberritu!'.

Advertisement for Egurrez, a company specializing in security and alarm systems.

Advertisement for Uzturpe Ikastola, a school offering various educational programs.

Advertisement for Aramburu, a company providing services in various regions.

ELDUAIN ▶

Yoga ikastaroak
asteazkenetan
Kultur Etxean

Urriaren 25ean hasiko da El-duaingo Udalak antolatutako yoga ikastaroa. Yoga eskolak asteazkenetan burutuko dira 15:30etik 16:45era. Izen ematea udaletxeko telefono zenbakian egin behar da: 943 38 31 21, hil honen 11 baino lehen. Gogoratu, hilaren 18an yogari buruzko hitzaldia emango dela 15:30ean Kultur Etxean.

IBARRA ▶

Gernikako
taldearen aurka
ariko da Ibarra

Mailan debutatu berri duen Gernikako taldearen aurka jokatu du gaur Ibarra areto futbol taldeak, Santanape kiroldegian 18:00etan. Gogoratu, David Prados, Imanol Rodriguez eta Xabier Blanchek partidua jokatu ahal izango dutela azkenean.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

POLITIKA ▶

Etzi hasiko da Ibarraldeko
gazteen aurkako epaiketa

Hiru egunetan deklaratu dute eta ondoren erabakiko dute zortzi gazteen epaia

MADDI SOROA

Etzi ekingo diote 2002. urtean atxilotu zituzten Ibarraldeko zortzi gazteen aurkako epaiketari Madrilgo Auzitegian, 10:00etatik aurrera; hiru eguneko iraupena izango du, etzik astezkenara bitarte, hain zuzen ere. Epaiketa nolako izango denaren inguruan Ibon Aranaldek adierazitakoaren arabera, «ez dago ezer argi, ez dakigu elkarrekin deklaratu dugun, bakarka, denok epaiketa bat izango dugun...».

Epaiketaren inguruan, berriz, «lasai eta itsaropentsu» daudela adierazi du Aranaldek. «Zain gaude, zer etorri daitekeen ikusiz». Bestalde, «esperantza daukagu zigor gisa espetxera joan behar ez izateko», nahiz eta «isunak edo inhabilitazioa izan ditzakegula uste dugun» adierazi du Aranaldek.

2002ko urriaren 9an atxilotu zituen Guardia Zibilak Mikel eta Josu Ozeita, Goar Jimenez, Garikoitz Ibarluzea, Gaizka Altuna, Aritz Sudupe, Ibon Aranalde, Eñaut Garmendia eta Jon Otegi, Espainiako Auzitegi-ko epaile Fernando Andreuen aginduz. Atxiloketaren uanean Madrilgo egoitzara eraman zituzten gazteak, «kale indarke-riarekin zerikusia izatea» leporatuta.



2002ko otsailaren 5ean, zortzi gazteak espetxeetatik atera eta plazan harrera egin zieten. IRATXE ETXEBESTE

Goizeko ordubatean hasi eta seirak arte, Ibarra, Belauntza, Leaburu eta Tolosako 13 etxebizitza arakatu zituen «bortizki» Guardia Zibilak egun hartan. Atxiloketekin batera, halaber, senitarakoak «iraindu» zituzten.

2002ko urriaren 1 n, hasiera batean atxilotutako bederazti

gazteetatik zortzi Soto del Realeko kartzelan sartu zituzten; izan ere, Gaizka Altuna kargurik gabe aske utzi zuten. Atxilotuak hiru egun ez inkomunikatu egon ziren eta «torturak» jasan zituztela salatu zuten.

Bost hilabete kartzelan igaro ondoren eta behin epaileak finkatutako fidantza ordainduta,

2002ko otsailaren 5ean askatu zituzten Josu Ozeita Aranjuetik (Madril), Mikel Ozeita eta Goar Jimenez Alcalá Mecotik (Madril), Ibon Aranalde Navalcarnerotik (Madril) eta Gari Ibarluzea, Haritz Sudupe, Eñaut Garmendia eta Jon Otegi Soto del Realeko (Madril) kartzeletatik.

IBARRA ▶ POLITIKA

De Juanaren
aldeko
giza katea

M. Soroa ▶ Atzo arratsaldeko zazpi eta erdietan, Iñaki de Juana preso donostiarraren aldeko giza katea burutu zuten, Ekaitz Aramendiren urtebetetze egunerako argazkia atera ondoren. 50 lagun inguru bildu zituen gaur 63 egun gose greban beteko dituen presoari elkartasuna adierazteko eginiko giza kateak. Ibilbideari dagokionez, San Bartolome plazan izan zuen hasiera kateak eta Euskal Herria kalean barna abiatu ondoren Ibarra sarrerraino iritsi zen. Ibilbide bera izan zen bueltan. M.S.

GIZARTEA ▶

JOXEMI SAIZAR

Curarrehue —harrizko al-darea mapuzungunez— eta Tolosa herriek elkarren arteko harreman handia dute. Iñaki Arriola apaiz eskolapioak hamaika urte daramatza Txileko herri hartan lanean maputxeekin, hainbat tolosar izan da han laguntzen eta beste batzuk laguntza handia eman dute hemendik, batez ere Tolosa izeneko lehortegia martxan jartzeko. Euskal Herriko beste erakunde batzuk ere bere laguntza eman dute. Uda honetan, bertan izan eta Ngen proiektuak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dut.

Curarrehue Txileko IX. Erregioan dago kokatua, Araucanian, Santiago hiriburutik 800 kilometro hegoaldera. Temuco da probintziako hiriburua eta gertuen dituen herri nagusiak Pucon herri turistikoa eta sumendi ospetsua duen Villarrica dira. Andes mendikatea eta Argentinarekiko muga gertu ditu. 6.800 biztanle ditu, horietako bi mila herrian bertan eta gainontzekoak inguruko mendietako komunitateetan, kasu askotan 40-60 kilometrotara, asfaltatu gabeko bideekin. Biztanleen %80a maputxe jatorrikoak dira, nahiz eta kontzientzia galdu xamarra izan. Ekonomia behartsua dute, gizonak hilabete batzuetarako iparraldera joaten dira fruta jasotzera eta emakumeak aritzen dira nekazaritza eta ganaderitza lanetan. Basoa da beste diru iturrietako bat.

Hamaika urteko lana

Iñaki Arriola eskolapio tolosarrak hamaika urte —1995ean joan zen— daramatza Curarrehuen, San Sebastian parrokian. Gasteizko Eskolapio ikasetzeko zuzendari zenean, uda askotan Nikaraguara joaten zen Hirugarren Munduko egoera ezagutu eta laguntzera. Hortik sortu zitzaion Txilera, Curarrehuera, joateko ideia. Bere aurretik Paulino kaputxino suitzarrak ere lan handia egin zuen Txileko herri hartan. Hasiara hasieratik herritarren kontzientziazioa eta autogestioa izan ditu helburu, beraien kultura eta hizkuntza —gehienak maputxeak dira— ezagutu, indartu eta ez galtzea, eta bere ikasketak eta lanaren bidez bizitzan aurrera atera ahal izatea. Helburu horiei jarraituz, talde baten laguntzaz, eta hainbat erakunde eta partikularren babes ekonomikoaz, Curarrehue goitik behera irauli du. Urte horietan ikusi ez dutenek ez lukete ezagutuko ere. Ngen —izpiritu indarrak— izena jarri zioten proiektu honi.



Los Saucos komunitateko ikasleak bere eskolako pasiloan, Curarrehuen. JOXEMI SAIZAR

Curarrehue, Tolosaren anaia

Iñaki Arriola eskolapioa ari da Txileko mendialdeko herri hartan maputxeekin lanean; proiektuak ez zaizkio falta

Bera, apaiza izateaz gain, eskolako zuzendaria, irakaslea eta autobus gidaria ere bada eguneroko lanean, eta maiz arkitekto, ekonomista, psikologo eta ingeniari lanak ere tokatzen zaizkio. Baina berarekin batera talde sendoa dauka laguntzeko: Juan apaiz bilbotarra, Setem gobernuz kanpoko erakundeko lankideak eta udako kooperanteak, herriko batzuk ere bertan ari dira lanean, Santiagoko unibertsitateko arkitektoak...

'Industrialde' berria

Denen artean makina bat eraikin eta asmo burutu dituzte, lan gehienak beraiek eginez —eraikuntza, altzariak, elektrizitatea...—. Proiekturako lanez gain, kanporako beste lanak ere izaten dituzte. Eta langintza guzti horiek *industrialde* berri batean daude zentratuta. Nabe handi batean biltzen dira auto tailerra, zerrategia —tartean tolosarrek egindako egur lehortegia, martxan jada—, komunitateetara janaria eramateko biltegia... Ondano dute ikasleek egurgintza praktikak egiteko beste leku bat.

Une honetan hiru eraikin berri ari dira eraikitzen: kulturar-

teko zentroa, gazteentzako albergea eta uzta etxea. Kulturarteko zentroak Lizeoko ikasleek erabili ahal izango dute eta, besteak beste, maputxeei buruzko informazio ugari izango du. Arriola biltzen ari den liburuekin Txile osoan maputxe gaiari buruzko liburutegi osatuena izatera iritsi daitekeela uste du. Curarrehue inguru turistiko batean kokatuta izanik —mendia, eskia, rafting, arrantza—, turismo sektorean lanpostu batzuk sor daitezkeela uste du eskolapioak. Eraikitzen ari diren gazteentzako albergeak eskaera handia izango duela uste du. Gaur egun hasiak dira ikasleentzako txabolak turismorako erabiltzen udaretan. Gainera, bertako turismo ikasleek albergean lan egin eta praktikak egin ahal izateko aukera izango dute. Azkenik, komunitate maputxeekin burutzen ari diren lanaren osagarri gisa, uzta etxea ari dira eraikitzen, bertan uzta bildu eta komertzializatu ahal izateko.

Asmo berriak buruan

Asmo berriak ez dira inoiz bukatzen Ngen proiektuaren barruan eta Iñaki Arriolaren bu-



Egurgintza ikasleentzako praktikak egiteko toki berria. JOXEMI SAIZAR

ruan. Curarrehueko biztanleen beharrei aurre egiteko eta irtenbide berriak emateko ideia berriak sortzen dituen makina da apaiz tolosarra. «Ideiak baskitugu, baina denbora asko kostatzen da horiek aurrera ateratzea», esaten zuen udan egindako bisitan. Horietako

EGINDAKO LANAK ▶



San Sebastian eliza. J.SAIZAR

- ▶ Eskola eta lizeo tekniko profesionala Curarrehuen (700 ikasle).
- ▶ Eskolak Flor del Valle eta Los Saucos komunitateetan
- ▶ Ikasleen barnetegia (150 ikasle).
- ▶ Eskola garraioa
- ▶ Umezurtzategia (6 urte arteko 30 haur).
- ▶ Haurtzaindegia.
- ▶ Emakumeen etxea (tratu txar eta banatze ugari dago).
- ▶ Irratia.
- ▶ Zerrategia-lantegia-biltegia-auto tailerra (14 langile, udan gehiago).
- ▶ Nekazari etxea (komunitateetako jendearentzat).
- ▶ 15 etxebizitza komunitateetan.
- ▶ Emakume taldeen antolaketa: merkantzien banaketa, negutegiak, jostungintza...

batzuk aurreratu zizkigun, baina itxura pixka bat hartu arte ez ditugu argitara emango. Herrian erreferentzia bilakatu da apaiz tolosarra. Maputxeek beraiek bere lanak antolatzea eta kudeatzea nahiko luke. Izango dugu bere berri. Eta laguntzeko aukera ere izango da beti.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 7a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leaburu-Txarama. Gaur hasiko dute dantza ikastaroa, 9 urtetik gorakoak 10:30etik 11:30era eta 3-9 urte artekoak 11:30etik 12:30era, herriko gazte gelan.

Tolosa. VIII. Garagardo Azokaren baitan, 17:00etan, Pedal Eguna, San Frantzisko ibiltokian zehar haurrentzat eta Txirri, Mirri eta Txiribito Junior emanaldia Leidor aretoan; 20:00etan, Vista Alegre txaranga, kaleetan zehar.

Tolosa. Goiz guztian zehar, Probintziako 37. Abelgorri Lehiaketa egingo da, Ferialekuan.

Tolosa. Biok eta Pok Mo Thon taldeen kontzertua izango da, 22:30ean, Bonberenean.

Tolosa. La botica antzerki taldearen 69 cigarrillos emanaldia izango da ikusgai, Fronton kafetegian, 23:00etatik aurrera.

Ugarte. Ugarte auzoko jaien baitan (Amezketan), 11:30ean meza nagusia; ondoren, gazteboen arteko pilota partidak, pilotalekuan; goiz eta arratsalde, puzgarriak, 12:30etik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara. Kartak edo auto txikiak, 15:30etik 19:30era; 16:30ean, VII. Mus Txapelketa; arratsaldean zehar, zaldiak; 18:00etan, zaldi karrera; ondoren, txokolataa pastelboekin elkartean; 21:00etan, zahagi ardoa; 22:30ean, Kupela taldearen emanaldia; atsedenaldian, bi zaldi harriarekin.

Villabona. XII. Azoka Berezia, 30 saltzaile inguru izango dira beraien berezitasunak eskaintzen Villabonako Errebote plazan, Irrintzi elkarteak antolatatu.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma ikusgai, 16:30ean haurrentzat, 19:30ean eta 22:30ean; haurrentzat 3 euro eta helduentzat, 4,5 euro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

Sahararrei bisita

TOLOSA ▶ 16 neska-mutil saharar izan dira eskualdean uda honetan; abenduan, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara bisitan joango dira Tolosaldekoak



Saharako gazteboak euren etxetara bueltatu ziren egunean. HITZA

ERREDAKZIOA

Denera 16 neska-mutil saharar izan dira uda honetan, eskualdean, Tolosan, Alegian, Villabonan, Añoetan, Gaztelun, Leaburu-Txaraman eta Berastegin, hain zuzen. Familia hartzaileei dagokionez, gehienak errepikatzaileak ziren arren, 5 familia berri izan dira, eta «izugarriko esperientzia» dela azpimarratu dute. Bi hilabeteetan, hain-

bat ekitaldi burutu dituzte gaztetxoek: Txiki Parkean, Igeldo-ko parkean, herrietako jaietan izan dira, besteak beste.

Hala, orain eskualdekoek izango dute kanpamentuetara bisitan joateko aukera, abenduko lehenengo astean. Bidai horretara animatzen denak Udaleko gizarte zerbitzuetara jo beharko du, edota Tolosaldea Sahararekin elkarteko zenbakira (645 71 07 89) hots egin.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



ZORIONAK!

Xabi eta Saioa. Zorionak zuen ezkontza egunean. Ondo pasa eta muxu bat lagunen partetik.

Tolosa. Azpiroz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina; eguraldia Joxe Landarekin, Hirzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Añoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

Goiko irrattia (107.0 FM)

13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Urriaren 8an, 18:00etan, AULESTIKO Torrezelai frontoian



antolatzaileak:



hitza

hitzaren aldeko bertso jaialdia

Maialen LUJANBIO • Iratxe IBARRA • Andoni EGAÑA • Amets ARZALLUS • MAÑUKORTA • Xabier AMURIZA
Gai jartzailea: **Leire BILBAO**

